

AKARTEGI KONPAINIA

Estatutuak, 2015ko uztaila





Estatutuak

Hasierako xedapena.- ALARDEKO ORDENANTZAK xedatutakoaren arabera eratu izan dira Estatu hauek, ORDENANTZA horretako arauekin kontraesanik sor ez dezaten.

Akartegi Konpainiak ALARDEAn parte hartzea ohorea eta borondatezko zerbitzu bat da bere kide guztientzat, gure aurrekoek emandako hitza betetzeko helburuarekin ospatzen den tradiziozko herri-ekitaldi bat delako.

(Akartegiko esparru geografikoa sartu)

Artikuluak:

1. Artikulua. – Osaketa

Konpainia osatzen duten kideak hauek dira:

- Kapitain bat
- Bi Teniente
- Sarjentu bat
- Bandako Kabo bat
- Banderadun bat
- Kantinera bat, emakumezko bakarra.
- Sarjentu bat (laguntzaile)
- Kabo bat (laguntzaile)
- Txilibito eta danbor banda bat
- Armadunak
- Kuberoak

2. Artikulua. – Janzkera

Janzkeraren osagaiak hauek dira: Txapela gorria, Jaka beltza (txilibito jotzaileek zortzi zenbakiaren itxurako irudi gorri bat daramate jakaren besoan), alkandora zuria, gorbata gorria, galtza zuriak, bi saihestetan marra gorriekin, gerriko gorria eta alpargata zuriak, gaineko aldean marra gorri batekin.

Kuberoek AKARTEGI hitza eramango dute kuboan idatzita.

Agintarien ezaugarriak honako Hauek izango dira:

- Kapitainak: Urre koloreko hiru kordoi edo xingola jakaren eskumuturrean
- Tenienteek: urre koloreko bi kordoi edo xingola jakaren



eskumuturrean.

- Sarjentuak: Urre koloreko hiru galoi alkandoraren poltsikoan.
- Kaboek: Hiru galoi berde alkandoraren poltsikoan.

Honako arma hauek eramango dituzte:

- Kapitainak eta tenienteek, sablea.
- Gizon armadunek, eskopeta. Benetako eskopetak eta horien erreplikak bakarrik onartuko dira. Arma ezkerreko sorbalda gainean eramango dute.

3. Artikulua.- Botoa emateko eskubidea

Botoa emateko eskubidea izango dute konpainiako kide guztiek, baldin eta aurreko bi urteetako batzar orokorretara edo aurreko lau urteetako hirutara joan badira.

Azken urtean batzorde iraunkorreko kide moduan jardun dutenek, edo horrek eskatutako lanetan, fundazioko tabernan adibidez, konpainiari laguntzen aritu direnek ere batzarrean botoa emateko eskubidea izango dute.

Botoa pertsonalki bakarrik eman ahal izango da..

4. Artikulua. – KAPITAINARI BURUZKOA

Konpainiako agintari gorena izango da. Kapitain izateko ezinbesteko baldintzak hauek dira:

- Adin nagusikoa izatea
- Akartegi auzoan jaio edo bertan bizi izatea. Hondarribian jaioa ez izanez gero, bere izendapenaren berrespena eskatuko zaio Alardeko Mandoen Juntari, Alardeko Ordenantzaren 9. artikuluaaren arabera.
- Gutxienez 10 urtez jarraian Akartegi Konpainian desfilatu izatea.

4.1.- BETEBEHARRAK:

Alardeko Mandoen bileretara joatea.

Alardearen inguruan sortutako gorabehera guztien berri Konpainiako Batzordeari xuxen ematea.

Gutxienez 5 urtez desfilatzea.

Kapitainak edukiko du Konpainiako Bandera. Era berean, berak edo berak izendatutako konfiantzako pertsona batek gordeko ditu konpainiaren ondasun guztiak.



4.2.- BAJA:

Bere borondatez baja emateko, urte bete aurretik jakinarazi beharko dio Batzar Orokorrari, horrek, hurrengo urterako hautagaiak aurkezteko astia izan dezan. Hori gertatuz gero, urte horretako iraila amaitu aurretik Ezohiko Batzarra egingo da.

4.3 ORDEZKAPENA:

Botoa emateko eskubidea duen konpainiako kide baten ustez, kapitaina aldatu beharko balitz, uztailaren 25ean hautagai berria aurkeztu beharko luke.

Proposamena onartzeko bozketa egin beharko da, eta gehiengo soila nahikoa izango da. Batzarrak proposamena onartuko balu, hautagaien zerrenda irekiko litzateke, urte horretako iraila amaitu aurretik antolatuko litzatekeen Ezohiko Batzarre batean bozkatzeko. Eta hautatutakoa hurrengo urtean izango litzateke kapitain.

Hautagai bat bakarra aurkeztuko balitz, *(Batzordeak berriro hautaketa prozesua ireki ahal izango luke, hautagaiak aurkezteko epe berria zabalduz, edo dagoen hautagai bakarra berretsi.. zeina automatikoki agintaritzaren jabe egingo baita.*

Hautagairik aurkeztuko ez balitz, hurrengo urtean berriro zabalduko litzateke prozesua, eta kargua uzteko bidean dagoen kapitaina behartuta legoke beste urte bete gehiago jarraitzera..

4.4 KAPITAINA AUKERATZEKO BOZKETA

a.- Uztailaren 25eko Batzar Orokorrean edo horretarako antolatuko den beste batzar batean egingo da, 4.3 artikularen arabera.

b.- Bozketak bi itzuli izango ditu. Bozketa bakoitzaren amaieran Batzorde Orokorreko idazkariak bozka-txartelak zenbatuko ditu, eta botoa emateko eskubidearekin *personalki edo ordezko bidez* batzartuta dauden kideen kopuruarekin bat etorri beharko du. Horrela gertatuko ez balitz, kapitainak baliorik gabe utziko luke bozketa, eta berriro egingo litzateke.

c.- Lehenengoan, hautagai guztien artean aukeratu ahal izango da, eta bigarrenean, botorik gehien jaso dituzten bi hautagaiak igaroko dira.

d.- Bigarren itzulian, bi hautagaien artean, gehiengo soilez, botorik gehien lortu dituen izango da irabazle.

e.- Berdinketa gertatuko balitz, ondoko baldintzen arabera erabakiko litzateke:

- 1.- Akartegin bizi dena
- 2.- Batzar orokor gehiagotara etorri dena.
- 3.- Entsegu gehiagotan parte hartu duena.

Aurreko irizpideen arabera bi hautagaien artean aukeratzea ezinezkoa gertatuko balitz, Batzorde Iraunkorraren esku geratuko litzateke bien



arteko bat aukeratzea.

4.5 BEHIN BEHINEKO ORDEZKAPENAK

Ezbarren batengatik (ongi eza, familiako arazoa, etb....) Kapitainak urteren batean desfilean parte hartzerik ez balu, Lehen Tenienteak ordezkatuko luke. Lehen Tenienteak ere ezingo balu, Bigarren Tenienteak hartu beharko luke ardura hori.

5. ARTIKULUA. - TENIENTEAK, SARJENTUAK ETA BANDERADUNAK.

BALDINTZAK: Kapitainarentzat ezarritakoen berdinak.

1.-Tenienteen hautaketa.

Kapitainak, aukeratua izan den batzarrean bertan, askatasunez izendatuko ditu bi tenienteak.

Agintari hauek izendatzeko edo kentzeko ahalmena Kapitainak izango du, bere laguntzaileak izango direlako, Estatutu hauek eta Alardeko Ordenantzak exijitutako ordena eta diziplina betearazten, edota beharrezko beste edozein antolakuntza lanetan.

Kapitainak hala eskatzen badie, Tenienteek Konpainia edo Kapitaina ordezkatu ahal izango dute Alardeko Mandoen Juntako bilera edo ekitaldietan.

2.- Sarjentuen, Kaboen eta Banderadunen aukeraketa.

Batzarraren ondorengo egunetan, Kapitainak, Tenienteekin batera izendatuko ditu Sarjentuak, Kaboak eta Banderaduna.

6. ARTIKULUA. - BATZORDE IRAUNKORRA.

6.1 Konpainiak Batzorde Iraunkor bat izango du, eta hori arduratuko da antolakuntza lanetaz, Estatutu hau betearazteaz, hautaketen zuzentasunaz, Akartegi Konpainia botere osoz ordezkatzeko beharrezkoa den batzarretarako deiak egiteaz, etab. Beraz, erabaki bat hartu behar den bakoitzean batzar bat antolatzea ezinezkoa denez, eginkizun horietaz arduratuko den Batzorde Iraunkor bat eratzea beharrezkotzat jo da, zeina jarraian azaltzen den moduan osatuko baita:

Batzorde Iraunkorra Akartegi Konpainiako kidez osatutako organo bat da, guztiak Hondarribian jaioak edo gutxienez 10 urtez bertan bizitutakoak eta azken 10 urteetan Akartegi Konpainiarekin Alardean desfilatu dutenak.



Batzorde Iraunkorra 12 kidez osatuko da.

Derrigorrez bertako kide izan beharko dute Kapitainak eta bi Tenienteek, postu horietan dauden bitartean. Behin kargua utzitakoan, Batzorde Iraunkorrean jarraitzeko eskubidea izango dute, baldin eta Akartegi Konpainiarekin Alardean parte hartzen jarraitzen badute.

Gainontzeko batzordekide izan daiteke, eginkizunetan laguntzeko prest dagoen pertsona oro, ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Batzordea osatzeko behar diren baino pertsona gehiago balego bertan parte hartu nahi duena, bertako kideek antolatuko lukete, txandakatuz edo behin behinekoz 12 kideko kopuru hori gaindituz, Estatutu Hauek horretarako aukera ematen baitiote Batzordeari, Batzorde Iraunkorrek bere kudeaketaren berri emango dio Konpainiaren urteko Batzarrari.

Kapitaina izango da Batzordeko Burua, eta bere ardura izango da gorabeherak ekiditea. Horretarako komenigarritzat jotzen badu, bilerak bertan behera utzi ahal izango ditu edozein momentutan, bertako kide guztiek ahotsa eta botoa izango dutelarik.

Batzorde Iraunkorraren bileretara joatea ezinbestekoa izango da, gaixotasun arazoengatik, luto egoeragatik edo beste arrazoi garrantzitsuren batengatik ez bada. Ezin etorriak, ahal izanez gero Kapitainari edo Batzorde Iraunkorreko beste kideren bati jakinarazi beharko zaizkio aldeaz aurretik.

Ohiko Bileretarako deialdiak Kapitainak edo Batzorde Iraunkorreko Idazkariak egingo ditu. Lehenengo eta bigarren deia egingo dira.

Ezohiko Bileretarako deialdiak Kapitainak, Batzorde Iraunkorreko Idazkariak edo Batzorde Iraunkorreko edozein kidek egin ahal izango ditu, beharra justifikatzen badu. Lehenengo eta bigarren deia egingo dira.

7. ARTIKULUA. - TXILIBITO ETA DANBORREN BANDA

Txilibito, Partxe eta Erredobleen Bandako kideen Zentsoa eratuko da, zeina Bandako Kaboak ikuskatuko baitu, aldaketen berri Kapitainari eta Batzorde Iraunkorrari emanez.

Bandaren arduraduna Bandako Kaboa izango da, beti ere Kapitainaren eta Tenientearen agindupean. Bandako Kaboaren eginkizunak hauek izango dira:



- Hondarribiko Alardeko martxa guztiak ondo ezagutu eta jotzea.
- Entseguak antolatzea.
- Partaide berriei Alardeko martxak irakastea.
- Materiala aukeratu eta gomendatzea.

8. ARTIKULUA. - TXILIBITOA

8.1 Txilibituen banda gehienez 100 kidez osatuko da.

8.2 Baldintzak:

- a.- Martxa guztiak jotzen jakitea.
- b.- 5 urtez Hondarribian bizi izatea.
- c.- Akartegin jaio edo bizi izatea edo Akartegiko kide baten ahaide izatea gehienez bigarren mailan.
- d.- Entseguetan parte hartzea.
- e.- 12 urte beteak izatea. Adin gutxiagokoak ere baimendu ahal izango ditu Kapitainak, aurreko baldintza guzti horiek betetzeaz gainera, gutxienez bi urtez kubero moduan konpainian atera bada.
- f.- 2020ko uztailetik aurrera bete beharreko arauak: Txilibitu bandan ezingo du inork desfilatu 45 urte edo gehiago baldin baditu datorren Irailak 8 an.

Komisioak kapitainak aurkeztuta atzeratu dezake urtetik urtera gehiengo adina, konpainiako oreka egokia dela ikusten badu.

9. ARTIKULUA. - ERREDOBLEAK

9.1 Erredoble-en bandak gehienez 35 kide izango ditu.

9.2 Baldintzak, 9.2 artikuluko berak izango dira, adinarena izan ezik, hemen gutxienez 15 urte beharko baititu.

9.3 2020ko uztailetik aurrera Txilibito bandari bezala gehiengo adina bera ezarriko zaio.

Komisioak kapitainak aurkeztuta atzeratu dezake urtetik urtera gehiengo adina, konpainiako oreka egokia dela ikusten badu.

10. ARTIKULUA. - PARTXEAK

10.1 Partxeen banda gehienez 75 kide izango ditu.

10.2 Baldintzak, 9.2 artikuluko berak izango dira, adinarena izan ezik, hemen gutxienez 15 urte beharko baititu.

10.3 Gehiengo adin muga ezartzen da Txilibitu eta Redoble bezala, muga hau ez da ezarriko baldin eta desfilatzen duten Partxe kopurua Erredobleak baino bikoitza edo gehiago izaten ez den bitartean.

Baldintza hau betetzean pertsonalki beteko litzateke araudia adin



nagusitik hasita , beti ere Partxeen kopurua Erredoblena baino bikoitza dela bermatuz.

Komisioak kapitainak aurkeztuta atzeratu dezake urtetik urtera gehiengo adina, konpainiako oreka egokia dela ikusten badu.

11. ARTIKULUA. - GIZON ARMATUAK

Konpainiaren ohinarria dira, eta 1639tik alardearen parte bezala foru miliziaren orddezkaritza.

Gutxienez 18 urte beteak izan beharko dituzte.

Armen erabilera desegokiak sor ditzakeen ondorioen erantzule zuzenak izango dira, eta jai giroan armak erabiltzeak sortzen duen arriskua kontuan hartuta, agintarien esanak xuxen bete beharko dituzte, eta beren laguntza eskaini, konpainiako partaideren baten egoeragatik, bere buruarentzat edo gainontzeko kide edo ikusleentzat arriskutsua gertatzen bada, egoera lasaitzen, arma kentzen edota behar izanez gero, desfiletik botatzen lagunduz.

Debekatuta dago Alardeko Ordenantzak izendatutako lekuez kanpo tiroak botatzea.

Irailaren 7an Guadalupeko Salbera Joatera behartuta daude.

12. ARTIKULUA. - KUBEROAK

Gutxi gora behera 12 kubero izango dira.

Konpainiak uztailaren 25an antolatzen duen bileran edo entseguren bat hasi aurretik izena eman beharko dute, Kapitainari edo honek izendatutako pertsonari izen abizenak eta adina adieraziz.

Baldintzak:

- 1.- Urte horretan gutxienez 6 urte beteak izatea. Hala ere Kapitainak adin gutxiagokoak baimendu ahal izango ditu, heldutasun maila eta gaitasun fisikoa kontuan hartuta, baldin eta aitak edo arduradunen batek Akartegin desfilatzen badu.
- 2.- Akartegin jaio edo bizitzea edo Akartegiko kideren baten ahaidea izatea, gehienez bigarren mailan.
- 3.- Aseguruari dagokionez, 13. artikulua dioena bate beharko du.

13. ARTIKULUA. - ASEGURUAK

14 urte baino gehiago dituzten Hondarribiko Alardeko kide guztiak aseguru batek estaltzen ditu Alardeak dirauen bitartean. Adin horretara iristen ez direnek, Akartegi Konpainiarekin Alardean parte hartzen



badute, gurasoen ardurapean egongo dira, eta horrela adieraziko da, aitak edo amak sinatuta, bere NANekin batera aurkeztuko duen idazki batean.

14. ARTIKULUA. - ENTSEGUAK

15.1 Entseguak, Kapitainak izendatutako lau edo bost egunetan egingo dira, eta uztailaren 25eko batzarrean, edo horren ordeztatutako denean, adieraziko dira.

15.2 Txilibitoak, erredobleak eta partxeak behartuta daude entseguetara joatera. Ezin etorria idatziz adierazi beharko dute.

15.3 Mandoek ere entseguetan Egon beharko dute, seinalizazioaz eta abarrez arduratzeko.

15. ARTIKULUA. - KANTINERAK

15.1 Aukeratua izateko baldintzak:

a.- Emakumea izatea

a.- 20 urte beteak izatea, edo aukeratutako urtean betetzea.

b.- Gutxienez 10 urtez Hondarribian bizitzea.

c.- Akartegin bizitzea edo konpainian 10 urtez desfilatzen duen kide baten alaba, biloba edo arreba izatea. Akartegin desfilatu duten Kantinera guztiak Konpainiako partaide dira, etzaie 10 urte desfilatzeko baldintza ezartzen.

15.2 KANTINERATAKO HAUTAGAIEN PROPOSAMENAK

Proposamenak idatziz eramango dira horretarako jarritako postontzira, edo Batzorde Iraunkorreko kideren bati edo Kapitainari emango zaizkio urte bereko uztailaren 20a baino lehen.

Proposamenen ondoko datuak idatziko dira:

Izena eta bi abizenak, jaiotze data eta lekua, NANen fotokopia edo jaiotze agiria, gaur egungo bizilekua, harremanetarako telefonoa, proposatutako hautagaiaren argazki eguneratua, eta datu guzti horietaz gainera, hautagaia Hondarribian jaioa ez bada, gutxienez 10 urtez bertan bizi delako ziurtagiria, Hiri honetako Udaletxeko Estatistika eta Zentsu Bulegoan emandakoa.

Proposamen idazkian agertu beharko da proposatzailearen izena eta bi abizenak eta sinadura, hautagaiaren datu eta agiriak benetakoak direlako erantzule gisa.



15.3 Hautagaien zerrenda ofiziala:

Batzorde Iraunkorraren bilera antolatuko da, Kapitaina buru duela, edo horrek ezin izanez gero, lehen Tenienteak beteko du Batzordeburuaren lekua. Idazkariak etortzerik ez balu, bilera honetako idazkari bat izendatuko litzateke. Jarraian hautagaien aurkezpena egingo da.

Proposatutako hautagaien agiriak ikuskatu ondoren, kantineratarako hautagaien zerrenda ofiziala eratuko da. Behin zerrenda hori itxitakoan, ez da beste hautagairik onartuko,

Hautagairik aurkeztuko ez balitz, horretarako epea zabalduko litzateke uztailaren 24ra edo Batzar Orokorraren bezperara, bigarren epe hau amaitutakoan ere, baldintzak betetzen dituen hautagairik aurkeztuko ez balitz, Batzordeak hautagai bat edo batzuk proposatuko lizkioke Batzarrari, nahiz eta horiek baldintzak ez bete, Batzarrak erabaki dezan.

15.4 BOZKETAK

- a.- Uztailaren 25ean, edo hori jaieguna ez balitz, aurreko igandean antolatuko litzatekeen Batzar Orokorrean egingo da.
- b.- Botoa emateko eskubidea 3. artikuluan ezarritakoa izango da, zeina pertsonalki edo ordezeko baten bidez eman ahalko delarik.
- c.- Bozketa sistema bi itzulitakoa izango da, Kapitaina aukeratzeko erabiltzen denaren berdina.
- d.- Botoen berdinketa gertatuko balitz, beste bozketa bat egingo litzateke, eta berriro ere berdinketa gertatuz gero, ondoko baldintzen arabera hautatuko litzateke:
 - 1.- Akartegin bizi dena
 - 2.- Akartegin bizitzen urte gehien daramana.
 - 3.- Zaharrena.

Kantinerera hautatutakoan, Kapiteinak berretsi eta izendatu egingo du.

15.5 Urte horretan instrumentuekin desfilatu ahal izango dute 15 urtez gorako bere anaiak, nahiz eta konpainia horretakoak ez izan.

16. ARTIKULUA

Akartegi Konpainiak Hondarribiko alardean parte hartzeak sortzen dituen gastuak, Konpainiako kideen artean bildutako diruarekin ordainduko dira.

Diru kontu guztiak publikoak izango dira.



Konpainiako kide guztiei urteko kuota bat jarriko zaie, kuberoei izan ezik, eta kuota horren zenbatekoa, Batzordearen proposamenez, Batzarrak berrikusi eta onartuko du.

Behin kuota ordainduta pegatina bat emango zaie eskopeta, txilibitu, partxe eta redoblei ondo ikusten den lekuan jartzeko.

Kuota hori kobratzeko modua Batzorde Iraunkorrek ezarriko du, eta norbaitek, arrazoi argirik gabe, ordaindu nahiko ez balu, Batzordeak jokabide hori zigortu ahal izango luke, kide hori behin behinekoz edo behin betikoz Konpainiatik kaleratuz.

Kuota ordainketa derrigorrezkoa da, urte batez kuota ordaintzen ez duen partaideak, pertsonalki ordainketa eskatu zaio, eta ordainketa hau ez bada hurrengo batzarrerako egiten boto eskubidea galduko luke eta ez litzaioke asistentzia kontutan artuko ordainketa egin arte.

Bi kuota ordaindu gabe, ordainketa eskaria idatziz egingo zaio, hurrengo batzarrerako ordainketa eginda ez balego behin-betiko kaleratzea izango luke.

17. ARTIKULUA. - AZKEN XEDAPENAK

Estatutu hau ulertzeko garaian sor litezkeen zalantzak Batzorde Iraunkorrek erabakiko ditu, bere kideen gehiengoarekin. Botoetan parekotasuna sortuko balitz, Kapitainak kalitatezko botoa izango luke.

Hondarribiko Alardean Akartegi Konpainiarekin parte hartze hutsarekin, Alardeko Ordenantzak eta Estatutu hauek dioten guztia onartutzat ematen da.

Alardetik kanpora botatzeko edo beste zenbait egintza burutu ahal izateko, Alardeko Ordenantzan edo Estatutu hauetan azaltzen diren hutsegiteak hauek dira:

- Ordenantzako lekuez kanpo tiroak botatzea.
- Entseguan edo Alardean bertan agintarien esanak ez betetzea.
- Desegoki jantzita azaltzea.
- Konpainiako kideei, ikusleei edo agintari arduradunei zor zaien errespetua ez gordetzea.
- Janzkerari ez dagozkion ezaugarri, pin edo pegatinak eramatea, eta horiek kentzeko agindua ez betetzea.

Kapitainak, edo hori egon ezean, Tenienteetako batek partaide bat Konpainiatik kanpora bota ahal izango lukete, ezarritako arauetakoren



bat desfile garaian beteko ez balu.

kanporatutakoak, Alardea amaitu ondoren, Batzorde Iraunkorrak entzuteko eta hurrengo uztailaren 25ean antolatuko den Batzar Orokorrean edo horren ordezkari batean arazoa aztertzeko eskubidea izango du.

Hondarribia 2015ko uztailaren 25a

Kapitaina

Idazkaria

Batzordeko kideak

